

# IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Klika, klika,  
Igeldo korrika!**

Kaixo herrikide!!!

Udaberrian bete-betean gaude eta Udaberri Jaiari begira jarri gara dagoeneko. Ale honetan doakizue egitaraua. Festak ere ez dira urruti eta hainbat kontu ere baditugu honi lotuta. Horrez gain, hauteskundeei buruzko informazioa duzue, eta

baita pasa diren ekintzena ere: Korrika, Greba Feminista eta emakume afaria, Inauteriak... Kontu Kontarin berriz, Xabier Camarero Urtz taldeko gitarra eta ahotsari egin diogu elkarrizketa.

Gustatuko zaizuelakoan... on egin!

## Jaiak hankaz gora jarri dituzte

Hiru bilera egin dituzte eta asmoa da eragile edo norbanako bakoitzak ekintza bat edo gehiago antolatzea festetan.

Jai Batzordearen egoera onena ez zela ikusita, Herri Kontseiluko kideekin batera funtzionamendu aldaketa bat proposatu zuten. Larrialdi egoera bat aukera gisa ikusi eta jaiak ahalik eta parte hartzaileenak izateko funtzionamendua eragin-kortzea izan da asmoa.

Horrela, lehen bilera bat burutu zuten jaiak hankaz gora lemapean. Bertan, Jai Batzordeko kideek taldearen egoera azaldu zuten eta denen artean funtzionamendu proposamen bat adostu zen. Bertaratutako 15 pertsona inguruk Koordinazio marko

bat sortzea adostu zuten. Hortik aurrera, eragile edo norbanako bakoitzak ekintza bat edo bat baino gehiago antolatuko du eta bilera hauetan eginiko aurrerapausoak azalduko ditu. Oraingoan 3 bilera egin dira eta 10 pertsonatik gora elkartu dira.

Bai Jai Batzordeko eta baita Herri Kontseiluko kideek ere oso positiboki baloratu dute burutzen ari den prozesua: «Jaiak denonak sentitu eta parte-hartzeari dagokionez, aurrera pausoak ematen ari garela uste dugu, bai antolaketan zein ekintzak gauzatzeko orduan».

## Ttonttorroren argazki lehiaketan parte hartzeko, azken egunak

Festetako programako portada aukeratzeko, argazki lehiaketa antolatu du aurten ere Ttonttorro Jai Batzordeak. Argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 12a da. Saria: programako portada eta 100 euro.

Aurkeztu beharrekoa, honakoa: Igeldorekin zerikusia duen argazki, marrazki, montaje edo collage bat. Argazkiak 14,85\*21cm-koa izan behar du.

Lanak aurkezteko lau aukera daude: kultur etxeko buzoian sartu (sobre baten barruan eta izen abizenak adieraziz); bulegoan entregatu (sobre baten barruan eta izen abizenak adieraziz); postaz bidali: Itsas Aurre kultur etxea, Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo (sobre baten barruan eta izen abizenak adieraziz); edo emailaz bidali: ttonttorro@gmail.com.

Animatu eta parte hartzeko dei egin du Ttonttorrok.

Udal,  
Foru eta  
Europako  
hauteskundeen  
txanda ere bai

Maiatzaren 26an  
izango dira  
Donostiako  
Udaleko,  
Gipuzkoako Foru  
Aldundiko eta  
Europako  
Parlamentuko  
ordezkariak  
aukeratzeko  
hauteskundeak.

2019 urtea hauteskunde urtea dugu eta Espainiako hauteskunde orokorrak pasa ostean, Udal, Foru eta Europako Hauteskundeak izango ditugu. Eta ahaztu gabe, Igeldoko Herri Kontseilua berritzekoak. Maiatzaren 26an izango dira denak.

Ohi bezala, Udal, Foru eta Europako Hauteskundeetarako, Igeldon erroldatutako herritarrek Eskolan bozkatu beharko dute honako ordutegian: 09:00-20:00. Herri Kontseiluko hauteskundetan parte hartzeko Itsas Aurren egongo da hautesontzia (aurrerago zabalduko dute informazio zehatzagoa).

Aipatzekoa da Juan Karlos Izagirre igeldotarra diputatugai dela EH Bildurekin (Donostiako alkate izana).

# Aurrera doa Herri Kontseilua berritzeko hauteskunde prozesua

Ehun bat hautagai proposamen jaso dira.

Herri Kontseilu berria osatzeko hauteskundeak maiatzaren 26an izango dira eta pixkanaka aurrera doa prozesua.

Apirilean hautagai izateko proposamenak jaso dira; guztira, 100

inguru. Orain, Hauteskunde Batzordea guztiekin hitz egiten ari da. Horietatik baiezkoa ematen dutenekin zerrendak osatu eta etxeetara zabalduko dira.

Hauteskunde Batzordea pozik

agertu da proposamenak ematen izandako parte hartzearekin. «Orain herritarrei Herri Kontseilu berrirako hautagaitzarako animatzeko deia egin nahi diegu», adierazi dute.



Realeko jokariak, senide, lagun eta zaletuekin lortutakoa ospatzen.

## Irati Arrillaga hockey jokalaria Europako txapeldunorde, Realarekin

Europako belar-hockey finala jokatu berria da Amsterdamen eta Realeko emakumezkoen taldea bigarren sailkatu da. Bertan jokatzen du Irati Arrillaga igeldotarrak. Semifinaletan Alemaniako taldea garaitu ostean (2-1) finalera sailkatu zen Arrillagaren taldea, baina ezinezkoa izan zuten AHBC taldeari irabaztea (7-0 nagusitu zen etxeko taldea) eta txapeldunorde gelditu ziren. Hala ere, emaitzarekin gustura daudela adierazi dio

Orri Informatiboari igeldotarrak, duen Realeko lehenengo taldea Europako txapelketa bat jokatu izan baita berriena.



Irati Arrillaga.



# Emozioa eta giro ona, Neguko pala txapelketan

Amaitu da I.Neguko pala txapelketa. Lizardi pilota eskola eta Herri Kontseiluaren artean elkarlanean burutu da txapelketa. Neguan hasi eta udaberrira arte luzatu da eta emozioa

eta giro ona izan dira nagusi.

Guztira 31 bikotek hartu dute parte: 8 bikotek pilota mazizarekin 1.mailan; 16 bikotek pilota mazizarekin 2.mailan eta 7 bikotek

teniseko pilota modalitatean.

Apirilaren 5ean jokatu ziren finalak eta ondorengo hauek izan dira lau sailkatuak modalitate bakoitzean:

## 1. MAILA PILOTA MAZIZAREKIN

1. Gereñu-Zabala
2. Dorronsoro-Loidi
3. Salaberria-Nuin
4. Ruiz-Zubimendi

## 2. MAILA PILOTA MAZIZAREKIN

1. Zumeta-Zumeta
2. Arregi-Urreaga
3. Mendi-Garin
4. Ruiz-Zubimendi

## TENISEKO PILOTA MODALITATEA

1. Jasone-Ixiar
2. Kris-Edurne
3. Barrondo-Arruti
4. Irati-Kandela

### Eskerrak laguntzaile eta parte hartzaileei

Txapelketari agurra emateko, finalako partiduen ostean, plazan afari

merienda prestatu zieten txapelketan parte hartutako pilotari guztiei.

Horiez gain, antolatzaileek

eskerrak eman nahi izan dizkiete txapelketan zehar lanerako bolondres ibili diren guztiei, bai eta parte-hartzaile guztiei ere.

# Iker Artanoren oroimenez jokatzeko den pilota txapelketa martxan da

Apirilaren 28an izen-ematea itxita, hasia da urteroko pilota txapelketa, Iker Artanoren oroimenez jokatzeko dena.

Eskuz, palaz mazizarekin edo palaz teniseko pilotarekin 3 modalitatean ariko dira parte hartzaileak. Maiatza eta ekainean zehar

partiduak jokatu ostean, ekainaren 22an (larunbata), San Pedro jaien barruan jokatuko dira finalak.

# Hainbat proposamen, Eskola Zaharrerako

Orain, taldea osatu eta zehaztutako ideiak proiektuan finkatzeko unea da.

Martxoaren 27an Eskola Zaharrari buruzko batzarra izan zen kultur etxean. Zortzi lagun inguru bildu ziren.

Batzarra parte hartze prozesuko galdeketetan ateratako ideietatik abiatu zen. Horiek gogora ekarrita, Herri Kontseiluak ideia horiek errealitatean kokatuta aurrera eramateko izan ditzaketen zailtasun

eta aukeren berri eman zuen. Behin errealitatean kokatuta, taldean lehentasunak markatu ziren.

Bertaratutako gehienek antzeko beharrak zerrendatu zituzten: gazteentzako gune bat, gela polibalenteak egun kultur etxean ematen diren ikastaro eta musika eskolarentzat, eguneko zentroa

edo jubilatuentzat egokitutako lekua baita kafetegi bat ere. Azkenik, herriko materiala gordezteko ere eskuragarri egongo litzaitekeen tokiaren beharra ere ikusi zuten sukalde batekin batera.

Orain taldea osatu eta zehaztutako ideiak proiektuan finkatzen hasteko unea da.



## Julen Iribar eta Joritz Etxeberria igeldotarrak izan dira Lapako irabazleak

Martxoa amaiera eta apirila hasieran, hiru ostiraletan zehar Lapa Txapelketa jokatu da eta Joritz Etxeberria eta Julen Iribar izan dira txapelkunak 612 punturekin. Bigarren postuan izan dira Mikel eta Xabi Del Campo 513 punturekin. Hirugarren postuan, berriz, Iñaki eta Eneko geratu dira 493 punturekin eta laugarren, Beñat eta Joxe 488 punturekin. 28 bat bikotek hartu dute parte aurten Lapan.

Bestalde, urtariletik martxora Mus Txapelketa azkarrak jokatu dira ostiralero.

## Bueltan da herriko dinamizatzailea

Maiatzaren 2az geroztik martxan da berriro herriko dinamizatzailea. Herri Kontseiluaren idazkari lanak egiteaz gain, herriko eragileei eta herritarrei laguntza ematen jarraituko du.

Bulegoko ordutegia: astelehenetik ostegunera 15:30-19:30; ostiraletan 10:00-14:00.

Telefonoa: 943313030 - 606311734

Emaila: herrikontseilua@igeldo.eus.

## Kanpinetik Biorretarainoko errepidea asfaltatu dute

Martxoa bukaeran kanpinetik Biorretarako bidea asfaltatu zuten. Iaz egin beharreko lana bazen ere, Herri Kontseiluak positiboki baloratu du egindakoa. Hala ere, beste behin, aurrez abisurik jaso ez izana salatu dute: «Prentsaren bidez izan genuen obraren berri. Donostiako Udalarri behin eta berriz eskatu izan diogu aurrez proiektua aurkezteko; bai bizilagun eta herritarrek egingo denaren berri izan eta proposamenak egiteko aukera izateko».



Herritar ugari gerturatu zen Itsas Aurrek eta Herri Kontseiluak deitutako prentsaurrekora.

## Madrilgo Auzitegi Gorenak atzera bota du Itsas Aurrek jarritako helegitea

Erantzuna: «Hemen eta orain ez da ezer bukatu, arazo politiko baten aurrean jarraitzen baitugu. 2/2003 foru araua aldatzea eskatzen dugu».

Otsailaren 26an jakin zen berria, Itsas Aurre elkarteak Madrilgo Auzitegi Gorenean jarritako helegitea atzera bota zuela. 2016ko urtarrilean Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak atzera bota zuen 2013an Aldundiak Igeldo Udalari izendatu zuen dekretua. Horri erantzunez, Itsas Aurre elkarteak helegitea jarri zuen, kasu honetan, Espainiako Auzitegi Gorenean eta 3 urtez erantzunaren zain egon ostean, aurtengo Otsailaren amaieran adierazi zuten ezezkoa, aurrez Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak esandakoa berretsiz.

Gertakari honi erantzuna emateko, Itsas Aurre elkarteak eta

Herri Kontseiluak prentsaurrekoa eman zuten otsailaren 27an arratsaldean, herriko plazan. Herritar ugari hurbildu ziren eta bertaratu-tako komunikabideei adierazitako mezua honakoa izan zen: «Ibilbide juridiko luze, neketsu eta garesti baten bukaerara iritsi gara... ekonomikoki gu itozteko erabili duten estrategia izan da, beraiek diru publikoaren anparoan eta gu gure poltsikoetatik dirua jarriz... Hemen eta orain ez da ezer bukatu. Arazo politiko baten aurrean jarraitzen baitugu... borondate politikoa da behar dena, Igeldoko herritarrok behin baino gehiagotan adierazi dugun

nahiak bere horretan jarraitzen du eta irtenbidea agintarien esku dago... Beraz, seriotasun eta zintzotasun guztiarekin dei egiten diegu bai Donostiako Udalari baita Gipuzkoako Foru Aldundiari ere ardura politikoz jokatzeko, beren lanari lotzeko eta gatazka edo desadostasun politikoei behar den erantzuna emateko, epaitegietatik kanpo eta herri borondatea errespetatuz... Arazo honi irtenbidea emateko aski baita borondate politikoa izatea. Horretarako, Igeldori herri izatea oztopatzeke propio onartu zenuten mugarria aldatzea eskatzen dizuegu, alegia 2/2003 foru araua aldatzea».

## Eskutik eskura, Errigorako udaberriko kanpaina

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura kanpainaren seigarren edizioan 93.000 litro olio, 207.000 ontzi kontserba eta 11.000 kilo arroz eskatu dira guztira. Iaz bezala, olioaren eta kontserben banaketa bi txandetan egingo da.

Igeldon ere kanpainaren berri

eman da eta zenbait herritarrek parte hartu dute. Joan den apirilaren 12an burutu zen olioaren eta kamiseten banaketa herrian eta kontserben eta arrozaren banaketa, berriz, maiatzaren hasieran egingo da.

Kanpaina honen bidez, berta-

kotasuna bultzatzea da helburua, tokiko produktuak aukeratuz; bertako ekonomia sustatuz eta lehengo sektorea eta tokiko elikagaien lantoki txikiak bultzatzeko urratsak emanez. Eta nola ez, euskal lurraldeen arteko harremanak elikatuz.

# Kooperatiba barrutik ikusteko aukera izan zen ate irekiera egunean

Batzarra ere egin zen aurretik eta azken aldian izandako administrazio tramiteen inguruko informazioa eman zuten bertan.

Martxoaren 31n, Kooperatibako ate irekiera izan zen eta bertaratutako guztiek azken denboraldian egindako lanak zertan diren ikusteko aukera izan zuten. Eguerdi alderako jende mordoxka pasa zen eraikina barrutik ikustera, kanpoko fatxada berrituak barruko lana zertan den ikusteko kuriositatea sortu duela argi gelditu zen.

## Aurretik, batzarra

Lehendabizi, batzar txiki bat egin zuten elkartu ziren bazkideekin, 50 inguru izan ziren eta bertan, azken aldian izandako administrazio tramiteen inguruko informazioa eman zuten. Batez ere, historikoki Kooperatibak izan dituen izen ezberdinek sortu dizkiete azken aldian buruhaustekak juntako kideei eta adierazi zutenaren arabera, gertaera honek prestamua jasotzeko tramitazioa atzeratzea ekarri die. Horren aurrean,



Batzarrean 50 bat bazkide elkartu ziren.

orain artean egindako lanak ordaintzeko beharra izanik, herrian laguntza eskatzea erabaki zuten. Herri Kontseiluak eta Din-Din elkarteak diru kopuru bat aurreratzea adostu zuten, hitzartuta duten prestamua jasotzean, diru kopuru guztia itzultzeko konpromisoarekin.

Bestalde Donostiako Udaleko

zenbait departamenturekin izan dituzten bileraren berri ere eman zuten, eta orokorrean bileran izandako jarreraren inguruan balorzio positiboa egin zuten.

Batzarraren ostean, eraikinean azken aldian egindako lanak ikusteko aukera izateaz gain, hamaiketa-ko goxoa dastatzeko aukera ere izan zuten bertaratu ziren guztiek.



# Hiru erabaki hartu dituzte Din Dineko bazkideek

Din Dinek urteroko batzarra egin zuen martxoaren 24an. 33 bazkide gerturatu ziren eta urtean zehar egindakoaren berri eman zieten juntakideek. Gai orokorren artean hiru erabaki hartu zituzten:

-Azken urtean Elkartean faltan arazoa areagotu egin dela eta, arazoa konpontzeko aukera desberdinen berri eman zen: kamara jartzea, giltza elektronikoa... Gerturatutako bazkideen gehien-goak ordenagailuari lotutako giltza elektronikoa jartzeko erabakiaren alde egin zuen.

-Komunak elbarrituentzako egokitzeko beharraren inguruan hitz egin zen. Kide guztiak alde azaldu zirenez, juntak obra aurrera eramateko lanari ekingo dio.

-Kooperatibak Elkarteari mailegu eskaera egin dio. Juntakideek

mailegu eredua proposatu zuten; 35.000€ko mailegua hurrengo sei urtetan itzultzeko baldintzarekin (%20 bost urtetan bigarren urte-tik hasita). Beti ere, elkarteak dirua beharrezko balu, Kooperatiba behartuta egongo litzateke dena itzultzera. Bozkaketa egin ondoren (31 kide mailegua ematearen alde, 2 abstentzio, 0 ezezko) mailegua onartu egin zen

## Zuzendaritza-batzordea aldatu da

Hiru kidek euren burua aurkeztu zuten junta berritzeko. Juanjo Barrondo, Mikel Arruti eta Iñaki Ugarte dira beraz, Mikel Altuna, Julen Areizaga eta Iker Zinkunegirekin zuzendaritza batzorde berria osatu dutenak. Bi urtez lanean aritu ondoren, Urko Aranguren, Jon Lizarazu eta Iñaki Aizpuruak taldea utzi dute.



Tontorrean ateratako argazkia. Argazki gehiago, interneten: igeldo.eus.

## Erniora irteera, apirilako azken larunbatean

Urtero bezala, aurten ere Din Dinek Igeldotik Erniorako mendi irteera antolatu du. Apirilaren 27an, goizean goiz Din Dinetik oinez abiatu zen mendizale talde txoa. Bidean indarrak berritzeko geldialdi txoa eginda, eguerdirako Ernioko gailurrera iritsi ziren. Igeldotik abiatu beharrean, Iturriotzetik joan zenik ere izan zen. Azkenean, kuadrila ederra osatu zuten eta ondoren Din Dinen bazkaldu zuten elkarrekin.





Igeldoko kilometroa Antiguako Pepe tabernaren parean izan zen.

## «Imaginatuz euskaldun denok euskaraz egiten dugula...»

21. Korrika apirilaren 4an hasi zen Garesen eta 14an bukatu zen Gasteizen, "Klika" lelopean. Oraingoan ere, Euskal Herria zeharkatu dute milaka lagunek korrika, euskararen alde. Igeldok ere bat egin du edizio honetan eta herriko eragile guztien artean kilometroa erosi zen (kilometroak 425 euro balio bazuen ere, 860 euro lortu ziren denen artean Korrikara bideratzeko).

Antiguako Pepe tabernaren aurrean egokitu zen igeldotarren kilometroa, arratsaldeko 17:00ak aldera, eta bertan elkartu ziren herriko haur, gazte eta helduak korrikan parte hartzeko gogoz. Juanjo Gabilondo eta Iruñe Larrea izan ziren lekukoa eraman zuten herritarrak. "Igeldoko elkarte eragileak Korrikaren alde!" bezalako oihuak entzun ziren, besteak beste.

### Korrika txikia Igeldon eta Antiguako

Apirilaren 11n Korrika txikia ospatu zuten herriko txikiek Igeldon,

guraso eta herritarrekin batera. Eskolatik irten eta Aita Orkolaga kaletik zehar Itsasalde kalea zeharkatu eta berriro Aita Orkolaga kaletik plazara iritsi ziren. Ziklo bakoitzeko ikasleek toki desberdinetan jaso zuten lekukoa. Bukaeran, hirugarren zikloko ikasleek euskararen alde prestatu zuten bertsoa abestu zuten Eskola Zaharreko aterpean. Mezua argia izan zen: «Imaginatuz euskaldun denok euskaraz egiten dugula. Guk ez genuke korrika egin beharko sekula».

Ondoren, merendolarekin amaitu zuten eguna. Eguraldia lagun izan ez arren, herriko txikiek guztia eman zuten euskararen alde.

Hurrengo egunean, berriro, eskolako zaharrenak (Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleak) Antiguara jaitsi ziren, bertan auzoko eskola desberdinetako ikasleekin batera Korrika txikia egitera. Bukatu zutenean hamai-ketakoa eman zieten. Orri informatiboari azaldu diotenez giro ederrean ospatu zuten.



Korrika txikia bukatzean, bertsoa kantatu zuten hirugarren zikloko ikasleek.



Biorreta baserria.

### Biorretan Eskola

Jakin dugunez, orain dela 75 urte inguru, Biorreta baserrian eskola izan omen zen, Teodoro Martinez irakaslearekin. Teodoro, Villadelmiron (Burgos) jaio zen eta 1942 urte inguruan etorri zen Biorreta baserrira. Aurrez, Orio inguruko beste zenbait baserrian ere egon zen. Gerra garaian Usurbilgo tren geltokian lan egiten omen zuen Teodorok, baina okerren bat egin eta kaleratu egin zuten, lanik gabe geldituz. Biorretara morroi lanak egitera etorri zen, baserriko lanetan laguntzera, baina hortaz aparte, inguruko gazteei eskola ere ematen zien. Hauek izan ziren Biorretako eskolatik pasatako batzuk: Egioletako Joxe, Antonio, Inazio, Balentin eta Sabino Alkorta; Muttegiko Joxe Etxabe; Arratzaindik ere



Arbel moduan ohe-buru bat erabiltzen zuten.

baten batzuk azaltzen omen ziren eta Biorretako Maria Luisak ere eskola saioaren bat jaso omen zuen. Eskolak emateko, arbel moduan ohe-buru bat erabiltzen zuten, gaur egunean oraindik baserrian dutena.

**A**tal honetan, herriko argazki zaharrak plazaratu nahi ditugu. Herriko historia eta istorioak kontatuz, zer hitz egina eta pentsatua emanaz. Gure asmoa herriarekin lotura duten mota ezberdinetako argazkiak jartzea da, eta bide batez, zure etxeko bazterrak astintzea ere eskatu nahi dizugu, interesgarriak izan daitezkeen argazki zaharrak dituzun begiratu eta gurekin konpartitzeko. Guztion artean lan polita egin baitezakegu. Animatu!

Argazkiak pasatzeko deitu 627 756 185 (Jabier), 645 735 762 (Larraitx) edo emailaz bidali igeldokoorria@gmail.com helbidera.

XABIER CAMARERO - URTZ TALDEKO GITARRA ETA AHOTSA

# «Disko honetako abestiak jendea gu adina hunkitzeko gai balira, izugarri poztuko ginateke»

*Urtz taldeak disko berria kaleratu du, "Zabalduteak" izenekoa. Martxoan aurkeztu zuten BilboRocken eta ordutik hainbat emanaldi eskaini dituzte. Udan zehar*

*buru belarri ibiliko dira zeregin horretan. Xabier Camarero igeldotarrak (1971, Irun) Urtz taldeko gitarra eta ahotsa denak, tarte bat eskaini dio Orri Informatiboari.*

Urtz taldea 1988 urtean sortu zuten, Pasaian. 2003 urtera bitartean, sei disko argitaratu zituzten. Sekulako arrakasta lortu zuten batez ere, lehenengo biekina ("Ekaitzaren garrasia" eta "Hautsa astinduz"). Horko abestiak dira hain ezagunak egin diren *Negua datorrenean*, *Zelatan*, *Gau ilun*, *Kaixo*, *Hautsa astinduz* edota *Bizitzarekin dantzan*, besteak beste. 2003tik 2013ra etenaldia izan zuen Urtzek eta 10 urteren ostean bueltatu ziren "Astiro" izeneko disko berriarekin. Orain, berriz, euren zortzigarren diskoa aurkeztu dute: "Zabalduteak".

**Aurtengo martxoan lan berria argitaratu duzue: "Zabalduteak". Zabalduteak zeri? Zer aurkituko dugu lan honetan?**

Berez diskoaren kanta baten izenburua da "Zabalduteak". Itsasertzean bizitza galtzen duten migranteen drama du hizpide. Mendebaldeak immigrazioari lapurtutako gizatasuna salatu nahi genuen kanta honen bitartez. Gure "zibilizazioaren" alde iluna bere gordintasun osoan erretratatu, alegia.

Azaleko "Zabalduteak" horrek, ordea, zentzu zabalagoa du... etengabe ateak ireki eta itxi egiten ditugu... Ate bat zeharka-



Xabier Camarero berak idatzi ditu letrak Iñaki Lazkanoren kolaborazioarekin.

tzen dugun bakoitzean, aukera berri baten aurrean aurkitzen dugu gure burua. Gauza askori ireki diezaiokegu atea: maitasunari, berdintasunari, askatasunari...

“ Laburbilduz, esan daiteke bizitzari buruz hitz egiten dutela gure abestiek. Ezin da, ordea, dena biluzi...”

Lan honetan, azaleko begirada batean, abesti kasik guztiek maitasunari buruz hitz egiten dutela dirudi. Eta, neurri batean, halaxe da. Nolanahi ere, komeni da beti lerro artean irakurtzea. Maitasunetik haragoko mezuak ere ezkutaten dira-eta abesti askotan. Laburbilduz, esan daiteke bizitzari buruz hitz egiten dutela gure abestiek. Ezin da, ordea, dena biluzi... Hala, beti gogoko izan dugu iradokizunari garrantzia ematea, bakoitzak bere interpretapena egin dezan.



Urtz taldeko kideak: Dani Vicente (gitarra), Jorge Sanchez (baxua), Xabier Camarero (gitarra eta ahotsa) eta Ander Hurtado de Saratxo (bateria).

**10 abestiz osatua dago eta letrak zerorrek idatzi dituzu hain ohikoa den Iñaki Lazkanoren kolaborazioarekin. Horrez gain, Pello Ramirez eta Alex Sardui musikariak ere izan dituzue lagun bi kantutan.**

Bai. Iñaki Lazkano beti izan da presente gure lanetan. Txiki-txikitik lagun mina dut, eta ordu asko sartu izan ditut berarekin, dexente eztabaidatzen dugu, baina azkenean, ohi legez, portu onera iristen gara. Sentiberatasun handia du Iñakik.

Pello Ramirez, berriz, musikari aparta da eta estudioan gurekin edukitzea esperientzia zoragarria izan da. "Argia" izenburuko abestian parte hartu du, oso gertuko bizipen baten isla da eta hunkitze-ko moduko kanta bat sortu nahi genuen. Uste dut, azkenean, sentiberatasun hori adieraztea lortu dugula.

Eta Alex Sardui aspalditik eza-gutzen dut. Exkixu-ren sasotik, alegia. Sarritan partekatzen genituen plazak eta "Aurpegi hori" abestia sortu zenean berea izan zen burura etorri zitzaidan lehen

“ Sonoritate berritzaileak antzematen dira, taldekide bakoitzak bere ekarpena egin duelako. Hala ere, taldearen esentzia mantentzen da ”

izena. Oso gustura egon ginen estudioan.

**Disko berria bakarrik ez, taldekideak ere berriak dira. Zu bakarrik mantentzen zara hasierako laukotetik. Urtz berri baten aurrean gaude beraz?**

URTZ taldeak sasoi ezberdinak bizi izan ditu. Jatorrizko taldearen kideak joan eta itzuli izan dira. Oraingo honetan, baterian Ander Hurtado de Saratxo, gitarran Dani Vicente eta baxuan Jorge Sanchez ditut bidaide. Sonoritate berritzaileak antzematen dira, taldekide bakoitzak bere ekarpena egin duelako. Hala ere, taldearen esentzia mantentzen dela esango nuke.

**Lan berriarekin, BilboRocken eskaini zenuten aurreneko kontzertua martxoaren 22an. Elizondon ere jo zenuten hilabetea bukatzerako. Zer moduzko harrera izaten ari da?**

Bilbon egin genuen diskoaren aurkezpena eta kontzertu hunkigarria izan zen. Jende asko hurbildu zen bertara, oso gogotsu, eta betiko abestiez gain, berriak ere jo genituen gure zaleen aurrean. Esperientzia ederra izaten ari da... emandakoagatik eta jasotakoagatik.

**Eta orain uda dugu aurretik. Kontzertu asko eta herriz herri ibiltzea tokatuko zaizue-la pentsatzen dugu... Gogotsu zaudete?**

Bai, oso gogotsu eta ilusio handiz. Udari begira zenbait kontzertu ixten ari gara.

**Igeldotik gertuen, non izango dugu aukera Urtz entzun eta ikusteko?**

Donostian, oso hurbil, jotzeko aukera izango dugula dirudi... baina momentuz ezin dugu data zehatzik eman...

**Urtz 30 urtetik gorako taldea dela kontuan hartuta, zer nolako zaleak topatzen dituzue? Garai batekoak, gazteak...?**

Batez ere, gure garaiko jarraitzaileekin egiten dugu topo kontzertuetan, askotan euren seme-alabekin batera. Hala ere, jende gazteagoa ere ikusten ari gara. Ederra da 25 urte dituzten zenbait abesti, oraindik ere bizirik mantentzen direla ikustea.

**Hamar urteko geldialdiaren ostean, 2013an bueltatu zinetela esan dugu. Garai hartantxe, 2014 urteko San Pedrotan jo zenuten Igeldon. Zer oroitzapen duzu kontzertu hartatik?**

Igeldokoa kontzertu ederra eta ahaztezina izan zen. Garaiko "Astiro" diskoan Igeldoko eskolako haurrek parte hartu zuten "Gaur pozik nago" abestian eta oholta gainean gurekin abesten egon ziren. Oso eskertuta sentitu nintzen Igeldon jotzeko aukera izan genuelako, giro ederrean.

**17 urterekin hasi zinen Urtzen eta 48 urterekin sasoi jarraitzen duzu oraindik halako talde baten erritmoa jarraitzeko... Zenbait momentutan ez da erraza izango, ezta? Oraingo ardurak eta bizimodua ez dira garai hartako berak izango... Zertan aldatu da Xabier Camarero?**

Ez da erraza izan, inolaz ere. Egia esan, duda asko izan ditut. Taldean aldaketa asko izan dira eta, zuk esan bezala, dagoeneko ez ditugu 17 urte. Nolanahi ere, azken urte hauetan Urtzentzat propio prestatutako hainbat abesti nituen eta jendearekin partekatu nahi izan ditut. Ez nituen armaruan ahaztuta gelditzen diren berokien antzera erabili gabe utzi nahi. Aitortu behar dut, baina, lan honekin aurrera jarraitzea erronka handia izan dela niretzat.

Pertsona berbera naiz, baina bizipenek ematen dizkiguten esperientziak mundua beste modu batean



“ Urtzentzat propio prestatutako hainbat abesti nituen eta jendearekin partekatu nahi izan ditut. Aitortu behar dut, baina, lan honekin aurrera jarraitzea erronka handia izan dela ”

ikusten, sentitzen, irakasten digute. 17 urte nitueneko inozentzia eta ilusioa gogo biziz oroitzen ditut, garai hartan ez genuen ezer espero eta gertatutako guztia oparibat izan zen. Gaur egun, 48 urterekin, erritmoa ez da berdina, noski, eta zuk esan bezala, familia kontuak, lanak, ardurak... handiagoak dira. Edoze-lan ere, denok badugu haur bat barnean eta nik, kasu honetan, banuen eskaintzeko zenbait abes-

ti. Hala, "Zabalduteak" diskoaren bidez nire barnean nuena entzun nahi izan duenarekin partekatze aukera izan dut...

**Luzerako izango al dugu Urtz?**

Denborak esango du luzerako edo epe laburrerako izango den... Orain, lan berria aurkezteko daukagun aukerak aprobetxatzen saiatuko gara. Disko honetako abestiak jendea gu adina hunkitzeko gai balira, izugarri poztuko ginatke. Kantek norbaiten bihotzera heltzeko aukera baldin badute, honek guztiak merezi izango du.

**DISKOGRAFIA:**

Ekaitzaren garrasia (1992)  
Hautsa astinduz (1994)  
Hain urrun (1996)  
Lur gazian ametsak ereinez (1998)  
Aingeru (2001)  
Azken eguna (2003)  
Astiro (2013)  
Zabalduteak (2019)

# Eskolako patioa, txukun-txukun

Otsaila bukaeran (22 eta 23), eguraldi onak animatuta, guraso talde batek eskolako patioan dauden irudiak txukuntzea erabaki zuen. Jolasteko erabiltzen diren irudiak koloregabeturik zeuden, euriak eta eguzkiak eraginda, eta horiek txukuntzen aritu ziren.

Margotze lanetan ibili ziren ostiral arratsaldean hasi eta larunbat eguerdira bitartean, ume talde bat laguntzaile zutela.

A ze sorpresa astelehenean haurrak eskolara iritsi zirenean!!!



Guraso eta umeak aritu ziren patioa irudiak txukuntzen.

## Gure Zuhaitza proiektuari 800 euroko laguntza

Martxoaren 6an Mendizorrotz Guraso Elkarteak bilera egin zuen eta Gure Zuhaitza proiektuari 500 euroko ekarpena egitea erabaki

zuen. Eta jakinarazi duenez, «denon artean 800 euroko dirulaguntza pilotzea lortu dugu ASGI-CER elkartearentzat (Gipuzkoa

Minbiziaren Aurka). Mendizorrotz Guraso Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue berriro zuen ekarpenagatik».



## Aginagara, Eskola Txikien festara!

Gipuzkoako Eskola Txikien festa Aginagan ospatuko da aurten. Ekainaren 9an izango da eta lan eta lan dabilta eguna prestatzen. Igeldoko guraso, haur eta herritarrei animatu eta bertaratzeko dei egiten die Igeldoko Mendizorrotz Guraso Elkarteak.

Bestalde, Eskolan ikusgai eta erosgai egon dira festa ospatzeko prestatu dituzten kamiseta eta sudaderak eta azaldu dutenez, jada banatu dira eskatutakoak!

# Euskal Herriko pertsonaiek girotu zuten eskola, Inauterietan

Martxoaren 1ean ospatu zituzten Inauteriak eskolan. Aurten mozo-rrotzeko gaia "Euskal Herriko pertsonaiek-Euskal mitologia" izan zen. Ikasleek mozorro desberdinak aukeratu zituzten: Lamiak, Ziripot, Atorrak, Joaldunak, Sorginak...

Goizean patioan dantza saioa egin ondoren, arratsaldean, talde desberdinetan banatuta, jolasetan parte hartu zuten: Lasterketa, far-doak, lokotsak, zakuak eta txingak.

Bukatzeke eta indarrak berreskuratzeke, merendola antolatu zuten.



## "Igeldotik mundura" proiektua landu dute

Hiruhileko honetan "Igeldotik mundura" proiektua landu dute Eskolan. Proiektuari bukaera emateko, irratsaioa prestatu zuten. Lehendabiziko lana irratirako izen bat aukeratzea izan zen. Proposatutako izen desberdinen artean bozketak egin ondoren, IGELRRATSAIOA aukeratu zen. Ondoren, irratian esan beharrekoa ongi entzaiatu eta mikroaren aurrean jarri ziren ikasleak. Primeran egin zuten.

## Lapurreta berriz, eskolako baratzean

Aurten ere ikasleek, eskolako baratzean, barazki desberdinak landatu dituzte. Barazki hauek ureztatu eta zaindu ere egin dituzte. Jasotzeko prest zeudenean, ordea, baratzean inguratu eta sorpresa ederra hartu zuten, beste behin ere: «Guk landatutako barazkiak ez zeuden eta geratzen ziren gutxi batzuk moztuta zeuden. Asko haserretu ginen», azaldu dute.

Aste Santutik bueltan, letxugak landatuko dituztela jakinarazi dute.

# Giro ederra Inauterietan,



Ostiral mehe egunez, Igeldon Inauteriak ospatu ziren. Eskola bukatutakoan hainbat jarduera prestatu ziren umeentzat guraso talde baten laguntzarekin.

Txikiek, mozorroak jantzita, desfilean parte hartu zuten plaza umorez eta kolorez jantziz.

Gero, jolasean aritu ziren taldeka, handi eta txiki, festa gauera arte luzatuz.





# desfile eta guzti!





## Greba Feminista, Igeldon

20 bat emakume elkartu ziren herrian, martxoaren 8ko greba feministarekin bat eginaz. Goizean, 11:30ak aldera elkartu ziren pankartak eta besokoak egiteko. 12:30etan herriko sarreran ordu erdiko kontzentrazioa egin zuten eta ondorenean plazan elkartu ziren bakoitzak etxetik ekarritako bazkaria janez. Bazkalostean eta Donostiako manifestaziora jaitsi bitartean, feminismoaren inguruan norberak zituen kezak elkar konpartitu zituzten, tertulia interesgarria gauzatuz.

Herriko zerbitzuei dagokienean, haurreskolan eta eskolan zerbitzu minimoak izan ziren. Hala ere, haurreskolara ez zen haurrik inguratu eta itxi egin zuten.



# Emakume afaria

## Mendizorrotz jatetxean izan zen

Urtero bezala, emakume eguna ospatzeko emakume afaria antolatu zuten herriko emakume base-ritarrek. Aurtengoan, martxoaren 9an izan zen eta Mendizorrotz jatetxean elkartu ziren. Guztira, adin ezberdineko 44 emakume

hurbildu ziren. Giro onean afaldu eta afalostea alaitzeko trikitixa eta pandero doinuak izan zituzten. Hala ere, afalosteko unerik gogokoena, baserriko produktuez osatutako saskien zozketa garaia izan ohi dute eta aurtengoan Izaskun

Urteaga eta Pilar Astiazaran izan ziren zortedunak. Mendizorrotz jatetxekeok ere euren ekarpena egin zuten, ardo eta xanpain botila batzuk eman baitzizkieten zozketatzeko, eta Helena Modregok jaso zuen saria.



# Udaberri festan, Kooperatibaren alde dirua biltzeko asmoa

San Isidro egunaren bueltan Udaberri Festa izan ohi dugu herrian. Aurtengoan, maiatzaren 11, 12 eta 15an izango da eta apustu berezia egin nahi dute Kooperatibaren alde dirua ateratzeko. Egitarau zabala izango da. Azpimarratzeko ekintzak: larunbat eta igandean ikusgai izango den "Erraiak" dokumentala (irrintziari buruzko dokumentala da), igande goizean izango den lore eta landare azoka frontoian edota bertako produktuen azoka kooperatiban, eta azkenik, asteburu guztian zehar izango den eskaintza gastronomikoa. Kooperatibako bazkide guztiei deialdi berezia egin nahi die, lanerako zein parte hartzera animatzeko. Guztien beharra izango dela azpimarratuz. San Isidro egunez, berriz, toka eta afaria izango dira ohi bezala.

## "Erraiak" irrintziari buruzko dokumentala, Kooperatiban

Hiru emanaldi eskainiko dira: bata maiatzaren 11n 19:30ean, eta beste biak maiatzaren 12an 12:30ean eta 18:30ean.

Irrintzia ardatz hartuta ekoiztu den dokumental bakarra da hau euskara hutsean grabatutakoa. Baina noiztik dugu irrintzia gure artean? Bizirik jarraitzen al du XXI.mendean? Hauek eta beste hainbat galderen erantzuna bilatzen duen ariketa da "Erraiak" dokumentala. Euskal Herriko txoko desberdinetan murgilduta irrintziaren jatorria eta hedapenaren azterketa egiten du. Zer eragin du irrintziak kostaldeko marinelen jardunean? Zer eragin barnealdeko bailaren egunerokoa?

Ekain Martinez de Lizarduy irakasleak eta Arteman Komunikazioak lankidetzan egindako dokumental honek, Euskal Herri osoan zehar irrintziarekin zerikusi zuzena duten pertsonen testigantzak jaso ditu.

## UDABERRI JAIA 2019

### MAIATZAK 11, LARUNBATA

17:00 "Parkour" ikastaroa (8 urteik gorakoentzat).  
"Patin Roller" ikastaroa (8 urteik beherakoentzat).

**Ondoren** "Parkour" ikuskizuna eta merienda gerturatutako guztientzat.

19:30 "Erraiak" Dokumentala eskainiko da Kooperatiban.

20:30 **etatik aurrera** bokatak eta razioak eskainiko dira Elkartean.

**Ondoren** barra irekiko da plazan.

### MAIATZAK 12, IGANDEA

10:30 LORE, LANDARE eta ZUHAIXKA AZOKA frontoian.

11:00 AZOKA Kooperatiban inguruko produktuekin eta Kooperatibari buruzko informazio gunea. Gazta eta ardoteka postua ere izango da.

12:30 "Erraiak" Dokumentala Kooperatiban. Ekain Martinez de Lizarduy Zuzendaria bertan izango da.

13:00 **etatik aurrera** bazkariak eskainiko dira Plazan. Oilaskoa eta saltxitxak parrilan, kus kusa barazkiekin, razioak...

16:00 Haur jolasak.

17:00 Esther Sound sistem.

18:30 "Erraiak" Dokumentala Kooperatiban.

**OHARRA:** Egun osoan zehar barra irekita izango da plazan edari eta pintxoekin.

### MAIATZAK 15, ASTEAZKENA

"SAN ISIDRO EGUNA"

20:00 Toka.

21:00 Afaria Etxe Nagusi jatetxean, Alkorta anai-arrebek girotuta.

\*Apuntatzeko, Txapela tabernan zerrenda. Azken eguna, maiatzak 12 igandea.

Mariskada eder bat zozketatuko da.

### ERRAIK ikusteko, sarrerak 4 euroan:

- |                                |                            |
|--------------------------------|----------------------------|
| -Txapela taberna (Igeldo)      | -Pandora taberna (Gros)    |
| -Garazi liburu-denda (Antigua) | -Aitzaga taberna (Usurbil) |
| -Jolasetxea taberna (Añorga)   | -Kolontxiki taberna (Orio) |

## OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak uztailean eta urrian izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



**IGELDOKO  
HERRI  
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea  
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo  
Tfona. 943 313 030  
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea Donostiako Udala